

ZERTARAKO TA ZERGAITIK

Nire ustez Franco'ren gure aurkako guda aurretik egin zan idazkirik onenatarikoa "Kristiñau-ikasbidea" izan zan.

¡Zelango joskera ta atzizkiak erabilteko trebetasuna!

Nik sarri-askotan euskal irakargai onenatarikoa irakurteko, idastitxo au eskuetan artu, idegiten dut.

Beton datorren "Aita Gurea" aukerakoa zan Bizkaiko erriarentzat. Alan eta be, aldatu egin eben. Zegaitik? Osotuz gipuzkera batasunera elduteko.

Eta Aita Gure orretan erriaren arritasunez *zaranak bezalak* eta *takoak* sartu euskuezan Gipuzkoa'ko Villarreal Urretxuan euskaldun teologak.

Baiña zer egiten eben an egozan Bizkaitar kokoloak? Isillik egon, oi-dan lez. Bizkaitar bildurti kemenbakoak Giputzen aurrean ez dira gauza ezetz esateko-eta.

* * *

Nire lagun Bizkaitar buru argitsu bat egoan an, eta nik esaten neutson nire ondoan bizi zanean: Baiña zuok Bizkaitarrok zelan itzi zenduen guk ain ederto ipiñita geukan "Aita Gurea" aldatzen, bertan gure belarrietarako berba ez egokiak sartuaz?

Lenengoz asi ziñien ezarten "Gure Aita" "Aita Gurea"ren ordez, jakin barik, Bizkaian beintzat, Zamarripa'k diñoanez jabe-izen lagunak izen ostean ipiñita samurtasun geiago daukala.

Gero "zarana" aditza "zagozana"ren ordez.

Jakin bear zenduen Bizkaian "zarana" otzara lango bat dala soloetatik bedarra abereentzat ekarteko. Zagozana kenduteko teoloji arrazoi oker bat erabilten zenduen Jainkoa dala toki guztietan esanaz. Baiña teologuak jakin bear dau zerua esaten danean gauza bi ulertu bear doguzala: egoerea ta tokia. Eta otoi egiten dogunean Aita Gurea Jaungoikoa ikusten dogu Aita gustiz altsu lez zeruko tokian.

Olantxe diño be Leonardo Boff teologu ospetsuak. Orregaitik "zagozana", ta ez "zarana".

Eta guretzat barregarri dan "bezala" zegaitik esan bear dogu, guk, berba egokiago lez?

Eta ederto esanda dagon "eguneroko" ordez, zegaitik esan "egun ontako"?

Benetan niretzat gure Euskera ederrak daukon atzizkirik motzena da takoa... Orain zazpi edo zortzi urte dirala idazki bat argitaratu neban nik iñoana: "Erri edo Laterri batekun eskatzen dauala izkuntza batua? Baiña zegaitik, zetarako? Belgika eta Suiza'k bi iru edo lau izkuntz guztiz ezbaridiñak euki arren ez ete daukie erri alkar batua ta maitatua? Eta Euzkadi'n Euskalki anaiak bakoitxa bere buru jabetasunez, beti alkar begiramenez eta gizabidez, ez dogu maitatuko geure Ama emonkor eta ona?

Ori bai: izan leiteke euren arteko batek beste anaien baten lepotik ta oneri kalte egiñez, erronka ta eupadaka asarrea ta burruka sortutea... Entzun daigun Latiegi'tar On Bizente'k oraintsu argitaratu dauan Oñatibia'tar On Dunisi'kin baterako idazti eder andi baten diñoana. Neuk euskeratuko dot orain arek erderaz liburu orretako 251 orrialdian ta 23'n oarpidean diñoana. Euskaltzaindia, El batua y la muerte del Euskera liburuan. "Euskalerriko jakintsuei euskera batua egiteko asmoak sortu yekezan euren adimenak erderaturik eukezelako, ta euren erderaren batasuna gure Euskercari ezarri gura eutsoen. Eta olan ebiltzan alegiñak egiten. Eta olan saldu ta galduten euskuen Euskerea. Era orretan bide okerrez eta saltzaillez, saltzaille ta ezjakiñek zireala ez jakiñez jakin barik Euskerearen batasunera ibillera egiten asi ziran. Baiña Euskadi'k ez dauko batuaaren bearraldi premiñik, euskeldunek euren artean alkar ulertuten diralako. Euskerea beti izan dan lez orain arte ez bardiña, berez, jatorrez zelan edo alan ikusten dakielako. Eta augaitik, Euzkadi'n erriak ez deritxo ondo batukeri orreri. Batasunean ez dau ipinten ardurarik, ez dau ontzat artzen.

Jakintsuai ezin leioe erraz parkatuauan ez jakitea Mundu zabaleko izkuntz filosofoena ta literaturan onena Gerkar "jatorra: zala ta onen antzera, Euskerea ez dala bardiña, lautarikoa baiño".